"Ekimenaren deskribapena eta parte hartzeko baldintzak".

1.- Xedea.

Energia aurreztea eta energia eraginkortasuna sustatzea enpresa industrial ertain eta txikietan. Horretarako, monitorizazio energetikorako sistema eta kudeaketa energetikorako prozesua ezarriko dira.

2.- Jardueraren deskribapena.

1. Hasierako egoeraren diagnostikoa.
2. Neurtzeko ekipoen eta datuak batu eta horien analisia egiteko plataformen arkitektura teknikoko proposamena.
3. Ekipoak erosteko eta datuak batzeko plataforma aukeratzeko laguntza.
4. Neurtzeko ekipoak instalatzeko laguntza teknikoa.
5. Sistema martxan jarri.
6. Plataforma kudeatzen ikasteko tutoretza eta trebakuntza.
7. Monitorizazioa ustiatu eta parametrizatzeko laguntza.
8. Energia kudeatzeko prozesuaren proposamena eta hori ezartzea.
9. Amaierako txostena.

3.- Egoeraren helmena.

Kontsumo elektrikoko bi (2) puntu hauen monitorizazioa egingo da:

- Sareburuan: Sareen analizatzailea instalatuko da neurri jarraian . Era horretan, denbora errealean energia elektrikoaren kontsumo guztiak (potentzia zein kontsumoa) kontrolatu ahal izango dira.
- Prozesu produktiboaren beste puntu batean edo beste instalazio batean ere neurtuko da.

Arkitektura teknikoko proposamen bat egingo da enpresan monitorizazioak muntatzeko, eta laguntza teknikoa eskainiko da horiek instalatzeko. Beharrezko materialen kostua zein instalazio kostuak enpresak ordaindu beharko ditu. Gipuzkoako Bazkundeak erosketa horiek kudeatzeko laguntza eskainiko du: monitorizazio ekipoak erosteko gehienez 900 euroko laguntza emango zaio enpresa bakoitzari.

Energia kudeatzeko prozesurik ez daukaten enpresentzat prozesua sortu eta ezarriko da.

Monitorizazio prozesua martxan jarri eta gero enpresako langile bat trebatu eta hiru hilabetetan laguntza jasoko du.

Amaitzean, enpresa bakoitzari ondorioak azaltzen dituen bakoitzari txosten bat entregatuko zaio. Txostenaren edukia honakoa izango da:

- Datu bilketa egin den hiru (3) hilabetetan egindako ikerketen azterketa orokorra eta zehatza.
- Karga-kurbak aztertu ostean antzeman daitezkeen energia kudeatzeko hobekuntzarako neurriak.
- Energia aurreztu eta energia eraginkortasuna lortzeko bestelako laguntzak.

5.- Enpresa onuradunak eta betekizunak.

Ekintzaren onuradun izan daitezke Gipuzkoako enpresa industrial txiki eta ertainak, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- Produkzio jarduna Gipuzkoan eduki behar dute.
- Gizarte segurantzako eta ogasuneko (GFA) ordainketak eginda izan behar dituzte.
- Ordainketa (803,94 € + BEZa) egin behar dute, % 25a jarduera finantzatzeko erabiliko da.
- Energia kontsumoak monitorizatzeko instalazioak ez izatea.

Izen-emateak honako konpromiso hauek dakartza berekin:

1. Enpresak jardueraren arduradun bat izendatuko du, eta huraxe izango da aurrerantzean harremanetarako pertsona.

2. Enpresak konpromisoa hartu du ekintza egiteko behar den informazioa emateko. Proiektuaren hasierako bileran, prestakuntzarako mintegian eta beste partaideekin batera egingo den azken saioan esperientziak partekatzeko bileran parte hartuko du.

3. Arkitektura teknikoaren proposamena jaso ostean enpresak konpromisoa hartzen du adostutako epean ekipoen instalazioa amaitzeko.

4. Monitorizaziorako instalatutako ekipoak eta monitorizazio plataforma erosi izanaren fakturen kopiak entregatu. Aurreko fakturen ordainketen egiaztagiria entregatu. Hori aurretiko baldintza izango da kontzeptu horiengatik gehienezko diru-laguntza (900 euro) jaso ahal izateko.

5. Proiektua amaitzeko enpresak asebetetze inkesta bat beteko du jarduera ebaluatzeko. Horretarako hamabost egun izango ditu.

6.- Enpresak ekimenean parte hartuko duela berrestea.

Enpresa onuradunak hamazazpi izango dira. Horregatik, izen-emateak egin ostean, hautaketa egingo da, honako irizpideak kontuan hartuz:

- Dokumentazio guztia aurkeztea.
- Dokumentazio guztia dakarren eskariaren iristeko hurrenkera.
- Lehentasuna emango zaie jabetzapeko instalazioei, edo dagokionean, energia kontsumoa sortzen duten sistemen gain eragiteko gaitasuna dutenei (errentan hartuta daudenean kasuz kasu aztertuko dira).
- Argindar kontsumoa urtean 15.000 euro eta 1.000.000 euro artekoa dela frogatzen duten enpresei emango zaie lehentasuna.

Ekimenean parte hartu nahi duen enpresak, laguntzak jaso ahal izateko baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatu ondoren, jakinarazpen bat jasoko du, zera adierazten duena: onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela, eta **803,94 € + BEZa** ordaindu behar dituela. Ordainketa hori egitean, enpresak ekintzaren onuradun izateko eskubidea lortuko du. Kopuru horren bidez, enpresak jardueraren kostuaren % 25 finantzatuko du; monitorizazio ekipoak erosteko kostuak salbu.

Gipuzkoako Bazkundeak, ekimenaren koordinatzailea denez gero, izena emateko buletinean zehaztutako kontuan kobratuko du helbideratutako ordainagiriaren bidez, eta dagokion faktura egingo du. Enpresa onuradunak, ordainketa egin ondoren, jakinarazpen bat jasoko du posta elektronikoz, programan finkatutako ekintzei hasiera eman ahal izateko.

7.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Izena emateko buletina behar bezala beteta.
- Enpresaren ordezkariaren NANa.
- Enpresaren planoak, plantan makineriaren banaketa eta zirkuitu nagusien eskema unifilar elektrikoak.
- Gizarte segurantzan eta ogasunean ordainketak eguneratuta daudela frogatzen duen ziurtagiria.

8.- Izena emateko epea.

Izena emateko epea 2015eko uztailaren 31an amaituko da.

ENERGIA AURREZTEKO ETA ENERGIA ERAGINKORTASUNERAKO programa.

Parte hartzeko eskaria

Izena emateko eskaria egiten duen enpresaren izena, aurrerantzean **ENPRESA**	
IFK:	
Sozietatearen izena:	
Langile kopurua:	**Herria:**
M^2 (pabilioia) :	**Instalazioen antzinakotasuna:**

Eskari-orria sinatzen duen ENPRESAren ordezkariaren izena, aurrerantzean **ORDEZKARIA**	
NAN:	
Izen-abizenak:	
Kargua:	
E-posta:	
Jarduketaren Arduradunarekin harremanetan jartzeko datuak.	
Izen-abizenak:	
Kargua:	
E-posta:	
Tel.:	**Faxa:**
Diagnostikoa egin behar den enpresaren kokapena adierazi behar da. KONTUZ: EGOITZA SOZIALA EZ DENEAN BAKARRIK IDATZI.	
Zuzendaritza:	
Langile kopurua:	**Herria:**
Programan parte hartzeagatiko erreziboa helbideratuko dizugun datuak) **IBAN:** _____ **C/C:** _____ **SWIFT:** _____	

Dokumentu hau sinatuta, ENPRESA "Energia aurrezteko eta energia eraginkortasunerako programako" parte hartzaileen zerrendan sartzeko eskaera egiten da, ekimen horretan parte hartu ahal izateko.

ORDEZKARIAK, dokumentu hau sinatuta:

- ENPRESAren izenean ezagutu eta onartu egiten ditu espresuki, beti ere enpresa "energia aurrezteko eta energia eraginkortasunerako" programaren onuradun bada, "**Ekintzaren deskribapena eta parte hartzeko baldintzak**" dokumentuan datozen baldintzak, 803,94 € + BEZ ordainketa barne hartzen duena. Ordainketa horren bidez enpresak programaren kostua finantzatzen du.
- Emandako datuak egiazkoak direla ziurtatzen du eta konpromisoa hartzen du ekintza gauzatzeko behar den dokumentazioa eta informazioa emateko.

Emandako datuak Merkataritza, Industria eta Nabigazio Bazkundearen fitxategi automatizatura sartuko dira "Energia aurrezteko eta energia eraginkortasunerako" programaren baitan enpresek duten parte hartzea kudeatzeko; datu horiek programako zerbitzu batzuen hornitzaileari laga dakizkioke, lantzen ari den lan-espedienteari dagokion enpresarekin harremanetan jartzeko. Datu horietara sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko zure eskubidea 15/99 L.O.ren arabera baliatu nahi baduzu, gure bulegoetan egin dezakezu.

Baimena ematen dut nire datuak adierazitakoaren arabera lagatzeko ☑ BAI / ☐ EZ (datuak lagatzea baimentzen ez bada, ezin izango da programan parte hartu).

.....(e)an, 2015eko ..... (r)en .....(e)an.

Sin.: ORDEZKARIA

Hona bidali:

Postaz: Gipuzkoako Ganbera, Tolosa etorbidea 75, 20018 – Donostia.

e-postaz: jvillaverde@camaragipuzkoa.com